



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko uztailaren 5eko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, uztailaren bostean, zortzietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatua zena : AYÇAGUER Elorri, GOICOECHEA Iñaki.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : CASIRIAIN Elena.

Deialdiaren eguna : 2022ko uztailaren 1a

Afitxatze eguna : 2022ko uztailaren 1a

3. ERABAKIA: 2021eko ABENDUKO UHOLDEEK KALTETU ZUBIEN KONPONTZEKO DIRULAGUNTZA ESKAERA

(7.10 nomenklatura)

Auzapezak oroitarazi du 2022ko otsailaren 1eko saioan, Herri Biltzarrak dirulaguntzak eskatzea erabaki zuela, 2021eko abenduaren 9 eta 10eko uholdeen ondorioz kaltetuak izan ziren azpiegitura, eraikuntza eta errepide bazterretan diren zirkulazio segurtasuneko hainbat ondasunen konpontzeko.

Auzapezak azaldu du, Frantziako *Ceremak* gidatzen duen azpiegituren programak herriko zubien diagnostikoa egin duela. Honela, herriari jakinarazi diote abenduko uholdeetan kaltetuak izan diren hiru zubiren egoera kezagarria dela eta horien konpontzeko ez dela dirulaguntza eskaerarik egina izan.

Konponketak 8 500 eurokoak dira, zergaz kanpo, eta honako finantzazio plana aurreikusten da:

- Elkartasun Funtza (%40): 3 400 €
- Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseilua (%40): 3 400 €
- Auto-finantzazioa: 1 700 €

Auzapezak proposatu du natur hondamendiak jasan dituzten lurralde erakundeen aldeko elkartasun funtseko ahalik eta dirulaguntza handiena eskatzea Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluari.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ONARTU DU**, 8 500 € ZK-ko lanen zenbatekoa,
- **ONARTU DU**, aurkeztu den finantzazio plana,
- **ESKATUKO DU**, natur hondamendiengatik kaltetuak izan diren lurralde erakundeen aldeko elkartasun funtsaren dirulaguntza,
- **ESKATUKO DIO**, dirulaguntza bat Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluari,
- **AURREIKUSIKO DITU**, Herriaren aurrekontuetan, lan horien osoki egiteko beharrezkoak diren kredituak,
 - **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari ekintza horren burura eramateko beharrezkoak diren neurrien hartzeko eta agiri oro izenpetzeko.

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 13
Balizko boz kopurua : 13
ALDE : 13
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko uztailaren 5ean
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/07/08an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/07/08an.